

noaia

2020 urteko udal
aurrekontua 12'3 milioi
eurokoa izango da

Saioa Aginako:
“Gazteak oso motibatuta
etortzen dira Gaztelekura”

Euskaraldiko bizipenen
eta desioen bilduma

Herritarron borondatea errespetatu,
Erraustegirik EZ!

SOS USURBIL
ERRAUSTEGIA GELDITU !

“Errauste-planta
gure osasunaren aurkako
mehatxutzat bizi dugu usurbildar askok”



gabonetako apaingarri eta dekorazioan aukera zabala!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



URDAIRA

Sagardotegia

Abenduak 14, LARUNBATA
BARRIKOTEA
20.00h Urdairan

Aginaga 943 37 26 91

2020 ILARGIAREN EGUTEGIA

Jakoba Errekondok garaiko uztak eta baratzea, fruitu arbolak eta basoko lanak.
Pello Zabalak aukeratutako esaerak. Maria Thunen egutegi biodinamikoarekin osatua.

Alkartasunaren dendan salgai eta
on line www.alkartasuna.eus webgunean



San Sebastianeko galna, Berastegi Argazkia: Dani Blanco.

Albistea iruditzen

50 urte egin ditu Peña Pagola elkarteak

51 urte bete dira Kaleza-
rren Peña Pagola Elkar-
tea sortu zenetik eta 50
urte Pilota Federazioan klub
bezala onartua eta inskriba-
tua izan zela. 50 urte ez dira
egunero egiten, eta hori ospa-
tzeko, festa antolatu zuten au-
zoan elkarteko kide eta lagu-
nek azaroaren amaieran.

Elkartearen sorreran egon zi-
ren lagunak omendu zituzten:
Jose Ramon Pagola Garin, Pako
Alkorta, Miguel Arrastoa, Jose
Antonio Etxeberria, Jose Luis
Ibarguren, Jose Luis Lalindez,
Jose Makazaga, Angel Matxain
(Olarri), Jose Manuel Matxain,
Pedro Mari Matxain, Jose Cruz
Maiz eta Jesus Olaizola.



Elkartearen sorreran egon ziren lagunak omendu zituzten.

Harri-jasotze erakustaldia eta bertso saioa

Omenduen ohorez, harri-ja-
sotze erakustaldia egin zuen

auzotar gazte batek 100kg-ko
harriarekin eta bertsoak ere
bota zizkieten. Hamaiketako
eder bat egin zuten elkartean

bertara hurbildutako guztiek,
eta giro ederrean Saizarren
egin zuten bazkaria 50. urteu-
rren festa borobiltzeko.

Laburrean

Larunbat honetan, jostailu erabilien azoka

Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso
elkarateak antolatu du azoka. Larunba-
tean, 11:00-12:30 artean frontoian. Bilke-
ta hilaren 12an eta 13an bideratuko du
antolakuntzak, 17:00-19:00 artean Sute-
giko erakustaretoan.

Ñaco Goñi eta Fernando Beiztegui kontzertuan

Ñaco Goñi harmonika joleak eta Fernan-
do Beiztegui gitarra joleak blues kon-
tzertua eskainiko dute Nagusia kaleko
tabernan. Larunbatean izango da, aben-
duaren 14an, 19:00etan hasita, Zendoia
tabernan. Emanaldirako sarrera doan.

Urteko azken NOAUA!, abenduarien 20an

Urteko azken NOAUA! hilaren 20an pla-
zaratuko dugu, gabonetako gehigarria-
rekin eta 2020ko egutegiarekin batera.
Ohar edo zorion agurrik baldin baduzue,
abenduarien 16a baino lehen igorri. Urtar-
rilaren 10ean plazaratuko dugu hurrena.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

Euskal Herra!



Aritz Gorriti

Astebeteko tartean, bi une oso ezberdinetan pantaila handian eta hedabideetan izango dugu Usurbil. Lehenengoa igaro da. Une gozoa. Irri gozo bat marraztu zion Usurbili igande gauean ETB-k eskainitako "Herri Txiki, Infernu Handi" saioko lan taldeak. Sagarra eta sagardoaren herria oroitarazi ziguten. Desagertu direnez, guk ezagutu ez ditugun paisaiak irudikatzen aukera eman zigun saiok, Usurbilen jatorria gogorazti edota herriko beste hainbat bitxikeria ezagutaraztearekin batera. Guztia, bertakoen, etxekoen ahotik. Herritarrek ikusi genituen, umore ezin hobeagoan arbasoengandik jasotako ondare ederrenetarikoa zuten etxeko hizkuntzan hizketan, Usurbil Euskal Herriari erakusten.

Saioa bera, herri askorentzat jende askorengana heltzeko erakuslehoan bilakatu da.

Irri egiteko uneak topera bizi beharrak omen daude, sarritan

Norabidez aldatu beharra, ezin dugu segi horrela

ez dute eta luzaroan irauten. Kasu argia dugu honakoa ere. Igandean, ETB-ko saio bategatik Usurbil pantaila handian proiektatu bazuten, hedabide hainbaten lerroburuetara itzuli-ko da berriro herri hau egun eta hilabeteotan, bestelako arrazoiz ilunagoengatik.

SOS deia egin dio Usurbilgo Udalak Gipuzkoari. Laguntza eta babes eskaera gipuzkoarrei, erraustegia probaldi fasean martxan jarri duten honetan, ingurumen, osasun eta ekonomiaz kezkatuta eta ezinegon handiak bultzatuta. Kezka eta ezinegon hau kaleratuko dute herri honetako lagunek nahiz bertaratuko diren bisitariek ostiral iluntzeko 19:00etan udaletxe ataritik abiatuko den manifestazioan.

SOS deia hizki larriz idatzi beharra dago, Europako Legebiltzarrak klima larrialdia deklaratu zuen egun berean jarri baitzuten martxan erraustegia probaldi fasean. Deklarazio eremu horretatik salbuetsiak ote gaude Gipuzkoan? Etorkizunean

ekar ditzakeen bestelako eragin/kalteen aurretik, jada mingarria da sakon ebakia dagoen Zubietan gainari kea dariola ikustea. Nahi eta behar ez dugunean, ez Zubietan ezta beste inon ere. Keak ez baitakar etorkizun itxaropentsurik, alferrik xahututako baliabideen deusezte kutsakorren seinalea baino ez da. Gutxi batzuen borondatea beharrezko mozorrotuarazi nahi duguten irudia. Eguneroko sufritu beharko duguna nahi izan edo ez, behar izan edo ez. Eta ezingo dugu beste aldera begiratu, aurrez aurre izango dugu lotsaren irudia. Lotsarik gabe, herri borondatearen aurka jarritako azpiegitura.

Herri txiki, infernu handi saioan iraganeko sagarrondoan herri Kaxko hartara bidaiatu genuen aurreko igandean. Birziklatze hitza ahotan hartu gabe, hondakinik ezagutzen ez zuten garaira, lurrak emandakotik bizi eta lurrari itzultzen zizkieten lehengaien arora. Plastikorik gabeko bizimodu hartara. Aurrera begiratu behar omen dela

erakusten digute sarritan, aurrera jotzea berez aurrerantz, hobetzera egitea balitz bezala.

Belaunaldi haien bizimodu eta jakinduria hartatik, eremuaren arabera neurri txiki edo handiagoan bistan denez, nabarmen aldentu gara. Eta orain larrialdi klimatikoan sakontzera garamatzen azpiegitura eraiki digute etxe ondoan. Bidean asko galdu dugu. Aurrera egin dugu, atzera begiratu gabe, kontrako noranzkoan gabiltzala jabetu ezinik edo nahi izan gabe. Baina galdutako guztia irabazteke dago. Norabidea aldatzeko alternatiba badu herri honek, erraustegia sustatu dutenek ukatu nahi izan baina goizago edo beranduago ukazina suertatuko zaiena. Erraustegia modernoena izan arren, pizterako zaharkitua geratu baita. Entzungorrena egin nahi duenak ere badaki jada, mundu osoan besterik ez baita entzuten; guztiok biziko bagara, ezin dugu segi horrela.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Ika-mika

Mila esker lagundu duzuen guztioi!

Lortu dugu biltzea erraustegiaren kutsaduren kontrol independentea martxan jartzeko behar zen dirua. Online crowdfundingetik nahiz bestelako diru-jasoketetatik 26.384 euro bildu ditugu orotara (azaroaren 9ko datua, Erraustetaren Aurkako Mugimenduaren -EAM- azken batzarren egunekoak). Poz handia dugu, gipuzkoarren bultzada horrek indar berriak ematen baitzizkigu aurrera egiteko EAMen ari garenoi. Gure esker ona zuei, zuen diru-laguntzarekin bilketan parte hartu duzuen herritarroei, baita beren laguntza eman duten udal, alderdi, sindikatu eta beste elkartei.

Zubietan Lantzenek abiatutako ikerlana ordaindu ahal izateko gure buruei markatutako

kopuruak gainditu ditugu. Gainera, ikerlariak iradoki moduan, bestelako azterketak ere bideratu dira: esate baterako, erraustegiaren inguruko emakumeen bularreko esnearen jarraipena (Usurbilgo, Lasarte-Oriako eta Andoaingo 39 emakumek eskuzabaltasunez eskaini dituzte beren laginak). Bildutako dirua fase honetako gastuak ordaintzeko erabiliko da, eta gelditzen dena hurrengo faseetarako gordeko da. Izan ere, gogoan hartu behar da diru-bilketa hau kontrolaren abiapuntua besterik ez dela izan: orain, jasotako informazioarekin, "zero puntua" markatuko dute ikerlariak, eta etorkizuneko kontrolekin jakingo dugu egoeraren bilakaera zernolako den.

Tamalez, Gipuzkoako agintari nagusiek eta GHK-k kontratua emandako konpainiek aurrera jarraitzen dute Zubietako erraustegia martxan jarri nahian. Duela gutxi piztu zuten erraustegia probaldi fasean. Hala, ez dituzte kontuan hartu herritarrek behin eta berriro adierazitako nahiak, ez dute kontuan hartu badagoela alternatiba, badagoela erraustegia gabe hondakinak ongi kudeatzea, European eta munduan leku askotan erakusten duten bezala eta Gipuzkoan bertan udalerririk askotan eguneroko erakusten dugun bezala.

Guk jakin badakigu hondakinak erraustea txarra dela. Txarra osasunarentzako, zientzialariak eta medikuek behin eta berriro erakutsi dute. Txarra da gure

ekonomiarentzako: baliabide eta diru xahuketa handia da. Errausteak kalte handia egiten dio ingurumenari, biodibertsitateari, klimari. Erraustean oinarritutako hondakin sistema txarra da langileentzat eta enpleguarentzat, askoz alternatiba hobeak badira.

Horregatik guztiagatik, EAM-ek Gipuzkoako herritar guztioi dei egiten dizue etorriko diren deialdi eta ekimen berrietan parte hartzera. Lehenengo hitzordua Usurbilen bertan dugu abenduaren 13an, ostiralean, arratsaldeko 19:00etan, udalak deitutako manifestazioan. Zatoz jarduerari bidegabe hau salatuz!

Erraustetarik ez. Ez Zubietan, ez inon.

Zubietan Lantzen

Orain artekoei eusteaz gain, euskararen aldeko konpromiso berriak hartu ditu Udalak

Euskararen Nazioarteko Eguna izendatu zenetik 60 urte bete diren honetan, mozioa onartu zuen udalbatzak aho batez azaroaren 28ko osoko bilkuran. “Egia da euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak ez direla alferrikakoak izan, eta euskara orain dela 50 urte baino hobeto dagoela, askoz hobeto, baina ez aski”, dio Usurbilgo Udalak azken plenoan aho batez onarturiko erakunde adierazpenak.

“Urrats berriak egin behar dira, lurgune euskaldunen eta arnaguneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak proposatuz”, gaineratzen du, “izan ere, eremu horiek sendotzean eta zabaltzean datza normalizazio prozesu orokorraren arrakasta, hein handi batean”.

Horretarako hainbat alorretan bada zer eginik. Mozioak orain arteko konpromisoei eutsi eta honako hauek hartuko dituela iragartzen du:

- 1- Administrazio publikoen kontratazioetan ziurtagiriak -Bikain eta Bai Euskarari, besteak beste- bateratu eta indartzeko neurriak hartzea.
- 2- Kirol arloa euskalduntzeko bidean lan egitea, federazioekin eta tokiko klubekin elkarlanean.
- 3- Familia eremuetan euskararen erabilera eta transmisioa sustatzea.
- 4- Migratzaileentzako laguntza ildoak aktibatzea, euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan dezaten.
- 5- Enpresetan euskararen erabilera normalizatzeko ekimenak aktibatzea, euskara laneko eta zerbitzuetako hizkuntza izan dadin.
- 6- Jarduera hau emaitza garatzea, enpresetan euskara erabiltzeko planak indarrean jartzeko.
- 7- Eremu guztietako eragileekin, hau da, enpresa elkarteekin, sindikatuekin, gremioekin, merkataritza ganbarekin eta



Azaroaren 28ko plenoan gai ugari landu zituzten.

AZKEN PLENOAN

Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Egunari lotutako erakunde adierazpena onartu zen aho batez

beste hainbat erakundekin-akordioak lortzea, euskararen normalizazioa bultzatzeko lana har dezaten.

8- Herriko gizarte eragile eta euskalgintzarekin batera elkarlanari eustea.

Borroka feministaren aldeko konpromisoa

Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Egunari lotutako erakunde adierazpena onartu zuen aho batez udalbatzak, azaroaren 28ko osoko bilkuran. Zortzi puntuko adierazpenak dioenez, “borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean”. Mugimendu feministarekin elkarlanean aritzeko prestasuna agertzen du. Larria den egoera honetan, “lehetasunezko konpromisoa berresten du indarkeria mota horren adierazpen guztien kontra”. Horretarako ordea, ezinbestekotzat jotzen du, “egungo orden sozial

patriarkala aldatzea eta indarkeria matxistaren erroei erreparatzea”.

Baliabideak sendotu

Emakumeen Munduko Martxak sustaturiko indarkeria matxistaren aurkako “erantzun-protokoloa bere egiten du” adierazpenak. Foru Aldundiari eta Emakunderi legeria berraztertzea, parekidetasuneko aurrekontuak handitzea eta berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzea eskatzen die. Udala bere aldetik, indarkeria matxista jasandako emakumeen erreparazio eskubidea lantzeko jarduera iraunkorrak abiatzera konprometitzen da.

Herriarrentzat, modu berezian emakumeentzat dauden baliabideen gaineko informazioa eskuratzea erraztu eta indarkeria matxistaren kontrako zerbitzu sare egokia, elkarlana eta koordinazioa sustatuko ditu Udalak, “beti ere, adin txiki-koak eta biktimen seme-alabak kontuan hartuta”. Nerabe eta gazteei harreman parekideak sustatzera zuzendutako sentsibilizazio eta formazio jarduerak sustatzea ezinbestekoa dela dio erakunde adierazpenak.

Izendapenak

Udalbatza osatu zenean, Uda-

lak beste erakundeetan izango zuten ordezkariak erabaki zuten. Tartean San Marko Mankomunitatekoa. Agurtzane Solaberrieta alkatea hautatu zuten ordezkaria eta Joxe Mari Iribar zinegotzia bere ordezkaria. Ordezkariak hau aldatzea erabaki zuten udalbatzak azaroaren 28an egin zuen osoko bilkuran EHBilduren eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen. Aurrerantzean, San Marko Mankomunitatean Udalak izango duen ordezkaria Lur Etxeberrria zinegotzia eta Agurtzane Solaberrieta ordezkaria izatea erabaki zuten.

Zubietako hitzarmenaren jarraipen batzordea

Bozketaren emaitza bera errepikatu zen, udal ordezkariak zehazteko azken osoko bilkuraren gai zerrendako beste puntuetako batean. Zubietarrei eskaintzen zaizkien obra eta zerbitzu hainbatetan bikoizketak saihestu, eraginkortu edota Zubietako kudeatzeko ardura duen erakundearen arteko koordinazioa hobetzeko hitzarmena sinatu zuten Herri Batzarrak eta Usurbilgo zein Donostiako Udalek. Urriaren 21ean jarri zuten indarrean. Besteak beste gogoan izan, hondakinen kudeaketa Usurbilgo Udalaren esku geratu da. Beirarena ezik, edukiontzia kendu dituzte Zubietako Kaxkoan eta haren orde bi Garbitxiki dituzte.

Honez gain, zubietarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak zein udalek eskaini antolatzen duen hitzarmenaren harira sortutako jarraipen eta kontrol batzorderako bina ordezkari izendatu behar ditu erakunde bakoitzak. Usurbilgo bi udal ordezkariak Lur Etxeberrria eta Itziar Basterrika izendatzea onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz azken osoko bilkuran.

2020ko erronkei heltzeko 12,3 milioi euro izango dira

Iaz baino 320.000 euro pasatxo gehiago izango ditu Usurbilek urte berriko egitasmo eta erronkei heltzeko; guztira, 12.375.710 euroko udal aurrekontuak. Azaroaren 28ko udalbatzaren osoko bilkuran onartu zituzten hasieraz EHBilduren aldeko bozkekin. EAJ eta PSE abstenitu ziren.

Udal gobernu taldetik adiztera eman zuten, igoera izan dute herri honetako diru-sarrerek. Agurtzane Solaberrieta alkateak nabarmentzen zuenez, batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru funtsa 100.000 eurotan haztea aurreikusia dute. Eta bestalde, herri honetan gauzatzeko bidean diren bi egitasmo handiek izango duten eragina ere ahotan hartu zuen; Udalak eta Matia Fundazioak Kalezarren eraikiko duten adinekoen auzune berria eta Michelin lantegiaren ondoko Zapategi lur eremura Gureak eta Elkar lantegiak ekartzeko egitasmoak hain zuzen.

Azken proiektuon harira, aurreko legegialdiak eginiko ahalegina goraiatu zuen So-



Hasieraz onarturiko udal aurrekontuok erreklamazio epean dira abenduaren 5az geroztik 15 lanegunez.

UDAL AURREKONTUAK

“Hasieraz onartu ziren gehiengo osoz; EHBilduren aldeko bozkekin. EAJ eta PSE abstenitu egin ziren”

laberrietak. “Lan eta harreman handiaren ondorio dira proiektuok Usurbilen lur hartzea”.

Egungo udaleko lan talde batek urte berriko aurrekontuetako gastu orokorrak kontrolatzeko ahalegina ere nabarmendu zuen alkateak. “Partidaz partida begiratu da”, aurrekontu ahalik eta erreale-

nak izan eta diru gehiago izate aldera.

Aurrekontuak onartzeko bidea
Hasieraz onarturiko udal aurrekontuok erreklamazio epean dira abenduaren 5az geroztik 15 lanegunez. Tarte horretan erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, 2020rako udal aurrekontuak behin betiko onartutaz joko dira.

Jada bide luzea jorratu dute urtero moduan, udal aurrekontuek. Urriaren 8an aurkeztu zuen Ogasun Batzordean aurrekontu proposamena udal

gobernu taldeak. Gogoan izan, aurrekontuon lanketa herritar, eragile edota udal ordezkari-ekin partekatu zuela udal gobernu taldeak. Batzuen zein besteen ekarpenak batzen aritu ziren azaroan zehar auzoz auzo EHBilduk egin zuen bileran errondan. Ekarpentok jasota, azaroaren 22ko Ogasun Batzordean aurrekontuok hilaren 28an egin zen udalbatzaren osoko bilkurara eramatea erabaki zuten. Eta aipatu plenoan hasieraz onartu ziren gehiengo osoz; EHBilduren aldeko bozkekin. EAJ eta PSE abstenitu ziren.

Aurrekontuen bilakaera:

2008: 12.925.163 euro.
2009: 13.200.000 euro.
2010: 13.042.840 euro.
2011: 13.903.890 euro.
2012: 10.982.729 euro.
2013: 10.033.478 euro.
2014: 10.360.521 euro.
2015: 10.482.470 euro.
2016: 10.705.129 euro.
2017: 11.057.464 euro.
2018: 11.310.981 euro.
2019: 12.055.173 euro.
2020: 12.375.710 euro.

2020ko udal aurrekontuak zenbakitan

Herri jasagarria:

- Gastuak: 3.192.385 (%25,80).
- Inbertsioak:
 - Pikaola zati baten urbanizazioa.
 - Usurbil 0.0.
 - Efizientzia energetikoa.
 - Herri lanetarako baliabideen berritzea: Brigadarako hondeamakina.
 - Konponketak ur-hornidura zerbitzuan: inbertsio handiena. Herriko ur propioarekin herriaren ahalik eta eremu handiena hornitzeko apustua (egun %40a Erroizpeko urarekin hornitzen da). Epe ez oso luzean amortizatuko dena udal gobernuaren esanetan, Añarberri ordaintzea utziko zaion horrekin aurrez-

tuko baita.

- Kale Irekiak: Mikel Laboa plaza-Artzabal oinezkotzea.

Herri nortasuna:

- Gastuak: 1.963.260 (%15,86).
- Inbertsioak:
 - Liburutegiko fondo berriak eskuratzea.
 - Sutegirako nahasketa mahai.
 - Lanbide Hastapeneko Atalluko pabilioia egokitzea.
 - Kalezarko Pelaioenea berritu eta egokitzea: Emakumeen Etxea kokatuko da bertan eta Kalezarko bizilagunen beharrei ere erantzungo die. Emakumeen Etxearen proiektua edukiz hornitzeko parte hartze prozesua egingo da.

- Txokoaldeko plaza eta gizarte ekipamendua Akerra Gaztetxearen eraikinean. Berriki, auzoko eta auzotarren beharrak identifikatu eta gunearen erabilera zehazteko parte hartze prozesua bideratu zuen Udalak txokoalderekin.
- Kale Irekiak: Aginagako Elutx bidea, Kaxkoa oinezko bidearekin lotzeko proiektua.
- Zubietako inbertsioak.
- Zumarteko barne ekipamendua.

Ongizartea:

- Gastuak: 2.073.533 (%16,75).
- Inbertsioak:
 - Oiarde Kiroldegiko pistako harmailen eta kamaren

konponketa eta berritzea.

- “Guztion” proiektuaren garapena.

- Barne ekipamendua.

Udala herriaren zerbitzura:

- Gastuak: 4.926.762 (%39,81).
- Inbertsioak:
 - Multifuntzioak eskuratzea.
 - TETRA komunikazio sistema berria...
 - Oharra: inbertsioak guztira, 1.743.635 euro.

Beste gastuak:

- Kreditu orokorra: 100.000 (%0,81).
- Nazio eraikuntza + solidartatea: 119.720 (%0,97).

EAJ: “EHBilduren udal gobernuak iraupenerako aurrekontuak burutu ditu”

Begi onez ikusi du Usurbilgo EAJ-k eginiko hiru proposamenak udal gobernu taldeak aintzat hartu izana, baina azken udalbatzarrean ziotenez, “ikusiko dugu kudeaketa egoki baten bidez proiektu hauek gauzatuak ikusten ditugun legealdi amaierarako”.

Diru-sarreraren %3,2ko eta gastuen %4ko igoerarekin orka bermatu gabe geratu dela zioen EAJ-k. Horrela jarraituz gero, “urtetik urtera inbertsioetarako diru gutxiago izango dugu”. Udal gobernu taldeak diru-sarrerak ordenantza fiskalak ukitu gabe jasoko dituela zioela baina “hori ez da zuzena” diote EAJ-tik. “KPIaren igoera onartua dauka eta be-



EAJ-rentzat aurreikuspenik gabeko udal aurrekontuak dira.

EAJ-PNV

Horrela jarraituz gero, “urtetik urtera inbertsioetarako diru gutxiago izango dugu”

raz ordenantza fiskalak ukitu dira eta usurbildar guztiok

geure poltsikoetan nabaritutako dugu”.

“Egitasmo falta, inbertsio eskasa...”

EAJ-rentzat aurreikuspenik gabeko udal aurrekontuak dira hasieraz onartu direnak, “egunean eguneko aurrekontuak iruditzen zaizkigu”. Are

gehiago, diotenez, “azken urteotako bide beretik, iraupenerako aurrekontuak burutu ditu. Egitasmo falta, inbertsio eskasa, emaitzak hor daude: egitasmo berri-tzaile ezaren ondorioz, inguruko herriekin alderatuz, Usurbil, zerrendaren azken postuetan kokatu da”.

Azken udalbatzarrean, adierazpenen txandan jeltzaleek etorkizunera begira ziotenez, “lau urte ditugu aurretik ikusi ahal izateko EHBilduk osatzen duen gobernuak benetan aurrera ateratzen dituen aurkeztu ditugun proposamenak. Ez da nahikoa txostena idatziz jartzea, baizik eta kudeaketa egoki baten bidez proiektuak gauzatuak ikustea legealdi honen bukaerarako”.

EHBildu: “EAJ-k beldur die herri-adostasunei”

“Inbertsioetarako ahalegin handia egingo dugu; zaurgarritasun eta ziurgabetasun egoeran dauden herritarrei laguntzeko, auzoen beharrei erantzuteko, emakumeen ahalduz sakontzeko, aniztasunari balioa emateko, ingurumenarekin abegikorrek diren politikak sustatzeko, usurbildarrei udal zerbitzu eraginkorra eskaintzeko”, iragarri du udal gobernu taldeak.

Aurrekontuotan EAJ-k eginiko hiru proposamen txertatu ditu EHBilduk: “Txikiardi eta herri sarrera lotuko dituen bidegorri proiektu bat idaztea (60.000 euro); Etxealdia auzorako ordenazio berri bat lantzea (50.000 euro); eta, Memoria eta Bizikidetzaren arlorako 15.000 euro bideratzea”.

Ekarpenok txertatu arren, EAJ-k aurrekontuok zergatik



EAJ-k eginiko hiru proposamen txertatu ditu EHBilduk aurrekontuotan.

EH BILDU

Herri-interesaren aurretik berriz ere alderdi interesak eta joko politikoa lehenestea egotzen dio EHBilduk EAJri

ez dituen babestu galdetzen du EHBilduk. “EAJk beldur dielako herri-adostasunei, boto espainiar batzuk mantentzearen. Argudio oso-oso merkeak entzun genituen osoko

bilkuran, justifikaezina den abstentzioa, nolabait, justifikatu ahal izateko. Batzuetan, gezurrak ere bai. Iraupenezko aurrekontuak direla, ez direla aurrera begirakoak, inbertsioetarako diru gutxi dagoela, udal barruko beharretara diru gehiegi bideratu dugula...”.

“Aukera galdua”

Udal gobernu taldea lau urteetarako, legealdiko plana osatzen ari dira udal langi-

leekin, haren abiapuntu dira 2020ko udal aurrekontuak. “Oposizioari ere parte hartzeko gonbita luzatu diogu. Ez dute parte hartu nahi izan ordea”. EHBildutik diotenez, “EAJk uko egin dio adostasunak lortzeari”. Udal beharretara diru gehiegi bideratzea egotzen diete jeltzaleek. EHBildutik erantzun dutenez, udaletxea berritu eta espazioa berrantolatzeke barne antolaketa lanak abiatzera bideratu dute dirua, “usurbildarrei kalitatezko zerbitzu publiko eraginkorrak eskaintzeko”.

Egoera honen aurrean, herri-interesaren aurretik berriz ere alderdi interesak eta joko politikoa lehenestea egotzen dio EHBilduk EAJri. “Legealdia adostasun handiak lortuz has gintezkeen, Usurbilen mesedetan. Bistan da EAJ ez dagoela horretan. Penaz diogu, aukera galdua izan da”.

Aginagako ur zikinak ere, saneatzeko bidean

Duela urte gutxira arte, herrian sortzen genituen ur zikinak erriora isurtzen ziren. Duela urte batzuetatik ordea, azpiegitura ezberdinei esker, ur zikinok Loiolako araztegiara desbideratzen dira. Egun, Aginaga ingurua da, herrian dugun saneamendu sare horretara batzea falta den zonalde bakarra.

Lanok bideratzera doaz Udala eta Añarbe Uren Mankomunitatea. Saneamendu obra hauen goi- eta behe-sistemak zehazteko bi erakundeon hitzarmena sinatzea bozkatu eta onartu zuen udalbatzak azaroaren 28ko osoko bilkuran; alde agertu zen EHBildu. EAJ eta PSE abstenitu ziren.

Proiektua erabat gauzatu arte indarrean izango da hitzarmena. Hiru fasetan gauzatu dira lanak.

Udal espedienteen suntsiketa

Udal artxiboko edukia xahutzen hasiera doa Usurbilgo Udala, bertan duten toki faltari (aspaldian ez dute dokumentazio berririk hartzen) eta segur-



Lanok bideratzera doaz Udala eta Añarbe Uren Mankomunitatea. Bi erakundeon hitzarmena sinatzea onartu zuen udalbatzak azaroko bilkuran.

UR ZIKINAK

“Egun, Aginaga ingurua da saneamendu sarera batzea falta den Usurbilgo zonalde bakarra”

tasun neurri gabeziei aurre egiteko. Abiatzera doan prozesua Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak ezarritako irizpideekin, gardentasunez eta prozesuan erregistro eta kontrol zehatza bermatuz egingo dute. Lehen fasean, Gizarte Zerbitzuetako Gizarte

Larrialdietarako Laguntzak (44 kutxetan jasotako 834 espediente) eta oinarritzko errentaren laguntza eskatzeko espedienteak (259, 15 kutxetan jasoak daudenak) xahutuko dituzte. Hala onartu zuen udalbatzak azaroaren 28ko osoko bilkuran, EHBildu eta PSEren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen.

Balio historikoaren arabera

Udaletik diotenez, suntsituko diren dokumentuak, jaso zirenean zuten balioa galdu dutenak izango dira. Etorkizunean balio historiko edo informatiboa dutenak betiko gordeko dira.

“Xua Gurasoekin Etxera”, Gipuzkoako Batzar Nagusietara

Gipuzkoako Batzar Nagusien Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Batzordeak aste hasieran egindako bileran Xua Gurasoekin Etxera herri ekimenaren agerraldia antolatzeke eskaera egin zuen EHBilduk. Aho batez onartu zuten talde guztiek: EAJ, PSE, PP eta Elkarrekin Podemosek.

Osoko bilkurara

Gipuzkoako Batzar Nagusietako EHBilduko ordezkari Aitor Aranzabalek aipatu bileran zioenez, “alderdi denekin egon dira Xua Gurasoekin Etxera plataformako kideak. Eskaera zehatz bat egin ziguten, agerraldia antolatzearena eta eabazpen proposamen bat”. Laster gauzatuko den agerraldia oso

garrantzitsutzat jo zuen EHBilduk, “Xuaren senideek esateko dutena jasotzeko”.

Aranzabalek iragarri zuenez gainera, “familiak eta Sare mugimenduko eledunek esaten digutena entzunda eta adostuta, aipatu eabazpen proposamen horrekin urtarileko osoko bilkurara joatea planteatuko genuke”.

2020ko udal plantilla eta lanpostuen zerrenda

Urte berrirako udal aurrekontuekin batera onartu zituzten hasieraz azaroaren 28ko osoko bilkuran, 2020rako udal plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda. Gehiengo osoz EHBilduren aldeko bozkekin. EAJ eta PSE abstenitu ziren.

Aginagako Herri Elkargunea berritzeko proiektuaren aurkezpena

Aginagako Eliza Zaharra auzolanean berritzeko proiektuaren nondik norakoekin berri emango dute bilera honetan. “Joan den urtean, gazteok buru-belarri jardun gara proiektua gauzatu asmoz. Honenbestez, aginatar orori proiektuaren inguruko azalpenak eman nahi genizkizueke. Ideia berri eta elkarlana oinarri hartuta, zuen guztion beharra dugunez, bertan elkar ikustea espero dugu”.

Abenduaren 18an,

Aginagako Eliza Zaharrean

Hitzordua, abenduaren 18an 19:00etan Aginagako Eliza Zaharrean. Proiektua landu duen Origami arkitektura taldeko kideen azalpenak jasoko dituzte bertaratzen direnek. Bertan burutuko diren hobekuntza lanen xehetasunak eskainiko dituzte. Horiek bideratzeko auzolan taldea sortu nahi da. Urteko plangintza ere aurkeztuko dute, Aginagako Jai Batzordeak eta Aginagako gazteek deitutako hitzordu honetan. Eliza Zaharra biziberritzeko lanean segi nahi dute, Aginagako Herri Elkargunea izateko egokitu.

“SOS Usurbil, erraustegia gelditu!”

Osokozkatuta daude, “egunero erraustegite-plantaren tximinietatik ateratzen den ke-zutabe erraldoiak ikusten ari baikara”, zioten udal gobernu taldeko kideek astearte goizean egin zuten agerraldian. Kezka eta ezinegon hau partekatzen duten gipuzkoar guztiak, Usurbilgo Udalak ostiral arratsaldeko 19:00etan udaletxe ataritik abiatuko den manifestaziora deitu zituzten, “alboan behar zaituztegunak”.

“SOS Usurbil, erraustegia gelditu!” aldarripean egingo da Udalak antolatutako mobilizazioa. “Laguntza eta babes eskaera bat da, Gipuzkoako herritarrei zein ingurumenaren zaintzarekiko ardura beren egiten duten gipuzkoar guztiak”.

Atzerapauso larritzat jotzen dute EHBilduko ordezkariak erraustegia probaldi fasean martxan jarri izana, Europako Legebiltzarrak klima larrialdia deklaratu zuen egun berean



Ostiral honetarako manifestazioa deitu du udal gobernu taldeak. 19:00etan abiatuko da udaletxe ataritik.

UDAL GOBERNU TALDEA

Erraustegiko ke zutabeek “ondorengo belaunaldiei utziko diegun etorkizuna zein den ezinhobeto islatzen dute”

hain zuzen. Are gehiago, urte luzez Udalak eta usurbildarrek erraustegiak herritarren osasun eta ingurumenean izan ditzakeen arriskuak salatzen aritu ostean. “Osasun arrisku hutsak aski behar luke arduraren eta prebentzioaren printzi-

pioa aplikatzeko beste ezeren aurretik”.

“Garesti ordainduko dugu”

Usurbilen %90eko gaikako bilketa izanda, beste hainbat herriek ere alternatiba badela erakutsi duten arren, “garesti ordainduko dugu eskatu eta behar ez dugun azpiegitura hori”. Erraustegiko ke zutabeak “ondorengo belaunaldiei utziko diegun etorkizuna zein den” ezinhobeto islatzen dutela diote. “Etorkizun beltza, kaltegarria, kutsatua”. EHBil-

duren esanetan, “gure porrotaren irudia da”.

Arazo etiko, demokratiko, ekologiko eta ekonomiko latz baten aurrean gaudela gogorarazten dute. Egoera honen aurrean, manifestazioaz gain, Gipuzkoako alkateei gutun bana helarazi die Udalak, gaia haien udalbatzarretara eramateko eskatuz, “itxikeria politikorik gabe eta herritarren ongizatea oinarritzat hartuz gai honi buruzko eztabaida bidera dezaten parametro etiko, demokratiko eta ekologikoetan. Erantzukizunez”.

Gipuzkoako Ahalduen Nagusi Markel Olanori ere biltzea eskatu diote, “gure kezka eta ezinegonaren berri eman nahi baitiogu aurrez aurre”. Ekimen guztiok, erraustegia probaldi fasean martxan jarri zuten egun berean, azaroaren 28ko udalbatzarrean EHBilduk urgentziaz aurkeztu eta udal gobernu taldeak soilik babestu zuen mozioan iragarri ziren.

Xingola beltza udaletxean



Balkoietan xingola ipintzeko deia egin du udal gobernu taldeak.

Abenduaren 13rako manifestazioa deitzearekin batera, etxean xingola beltzak zintzilikatzeko deia egin du udal gobernu taldeak soilik babestu duen adierazpenak.

Zarata eta ur lurruna

Gipuzkoako Hondakinen Kontsultaziotik jakinarazi dutenez, ur-lurrun zirkuituko frogak egingo dituzte egunotan Zu-

bietako erraustegian, zirkuitua hau garbitu eta martxan jartzeko prest uzteko. Zirkuitua turbinara lotua egongo ez denez, ur-lurruna isuriko omen dute. Horrekin batera, 100 dezibelera heldu daitekeen zarata ere eragingo omen du probaldi honek. Egunotan egingo dute probaldia, 7:00-16:00 artean. Zarata handiena, 11:00-13:00 artean entzungo omen da.

Martxalariei babesa



Urtarrilaren 9rako elkarretaratze berri bat deitu dute.

2018ko irailean Zubietako erraustegiaren aurka antolatu zen martxan parte hartu zuten lau lagun epaitzen hasi ziren joan den astean Donostian. Epaituak izango ziren lagunei elkartasuna adierazi eta protesta soziala kriminalizatzeko ahalegin hau salatu zuten hiriburuko epaitegi atarian. Besteak beste, “protesta egitea ez da delitua”, errausketaren

aurkako edota klima aldaketa erraustegiarekin parekatzen zuten aldarriak entzun ziren.

Elkarretaratzea

Urtarrilaren 9an izango da epaiketaren bigarren saioa. Egun horretarako ere mobilizatzea deitu du Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Elkarretaratzea deitu du 10:30ean Donostiako Egiako epaitegi atarian.

“Neskei aukera eman nahi genien modu zabal batean hilerokoaren gainean hitz egiteko”

Beldur Barik indarkeria sexista prebenitzeko gazteei zuzendutako programak urtero antolatzen duen ikus-entzunezko lehiaketa irabazi dute Gaztelekuko DBH2ko gazteek “Menstruazioa bai!” lanarekin. Bi hilabetez hilerokoaren gaia lantzen aritu ostean, lanak fruituak eman ditu eta 400 euroko saria eskuratu dute. Udalak ere omendu egin ditu irabazleak feminismoari eginiko ekarpenagatik. Saioa Aginako hezitzailearekin izan da NOAUA! lanketaren nondik norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Beldur Barik lehiaketan, 12-13 urte arteko kategorian lehen saria irabazi duzue “Menstruazioa bai!” lanarekin. Nolako izan da bideoa egiteko prozesua?

Saioa Aginako: Hiru urte daromatxagu Beldur Bariken parte hartzen, orduan badakigu ikasturtea hastearekin batera lanketa egiten hasi behar dugula, epe muga hortxe dagoela. Gaztelekuarekin martxa hartu eta hilabete edo hilabete eta erdiko marjinarekin jokatzeko dugu. Talde bat aukeratzen dugu lanketa egiten hasteko, eta orain arte beti DBH2koekin egin izan dugu, eta aurten ere berdin. Hasten gara ideia planteatzen, ea parte hartu nahi duten eta hala bada zein diren



Udalak Gaztelekuko irabazleak omendu zituen, “feminismoari eginiko ekarpenagatik”.

SAIOA AGINAKO

“Ezjakintasun handia dago. Emakumeon artean oso ohikoa da ezkutuan eramatea”

interesatzen zaizkien gaiak eta abar. Urtero ikusten dugu gogo daukatela, eta gaia lantzen hasten gara. Lehiaketaren helburuak azaltzen dizkiegu, eta hortik aurrera gaiak bilatzen hasten gara; egunerokotasunean kezkatzen dituzten gaiak. Menstruazioaren gaia atera zen, eta ni neu ere gai hori proposatzeko nintzen. Lantzeko interesgarria izan daitekeen gaia zela iruditzen zitzaidan, eta niri ere pertsonalki gustatzen zaidan gaia da. Menstruazioari buruzko galderak egiten hasi ziren, eta motibatuta ikusi

genituen horrekiko: inporta zaiela, jakinmina dutela, eragiten diela egunerokotasunean... Orduan gaiari buruzko lanketa egitea erabaki genuen, eta hori gero bideo batean aurkezteko ideia horrekin. Bi hilabeteko lana izan da.

Mutilek ere parte hartu dute proiektuan. Nolako izan da lanketa haiek?

Gaiaren inguruan ezjakintasun handia dago. Emakumeon artean oso ohikoa da ezkutuan eramatea: tanpaxa ezkututzea, keinuak erabiltzea mutilak daudela adierazteko, gaiaz ez hitz egitea... Hortik gaia zabaldu genuen, eta denon artean landu genuen gaia, bai neskekin, bai mutilekin. Batzuek gehiago zekiten gaiari buruz, besteek gutxiago. Mutilek ere

galdera asko izaten dituzte gaiaren inguruan. Horren gai zurruna izanik, batzuek uste zuten zikina dela edo nazka ematen duela. Galdera asko egin zituzten gazteek orokorrean: ea zergatik zikintzen den konpresa atzean eta aurrean ez horrenbeste, tanpoiek nola funtzionatzen duten... Konpresa eta tanpoiak ekarri genituen, ikusi eta ukitzeko aukera izan zezaten.

Alde batetik, neskei aukera eman nahi genien modu zabal batean menstruazioaren gainean hitz egiteko eta mutilei ere aukera eman nahi genien gaia ezagutzeko eta ezagunago egiteko. Menstruazioa zerbait natural eta normalizat hartzea izan da helburua, zerbait barregarria ez dela erakusteko.

Saioa Aginako: “Ez genuen irabaztea espero”

NOAUA! Parte hartzea oso zabal izan da.

Saioa Aginako: Horrelako proiektu batean parte hartzeko motibazio ugari daude. Batzuentzat gaia da motibazio nagusia, beste batzuentzat elkarlana lantzeko modua izan da, eta

beste batzuentzat ikus-entzunezko lana izan da politena, besteentzat kamera aurreko lanak egitea izan da motibazioa. Azken finean, gaia hor ibili da bueltara eta denek jaso dute zerbait.

Espero zenuten saria irabaz-

tea?

Ez genuen espero irabaztea. Bai ikusten genuen lanketa potentzia egin dugula eta gazteak ere oso harro eta gustora geratu ziren egindako lanarekin. Emaizta txukuna atera zela kontziente ginen, baina irabaztea zuzenean ez genuen espero.

Gazteen ustez merezitako saria izan da eta oso pozik daude.

Sarian jasotako 400 euroak zertarako erabiliko dituzue?

Oraindik ez dugu erabaki. Ideia da denon artean zerbait egitea, asko gara eta ekintza-aren bat egin nahi dugu.

“Oso motibatuta etortzen dira”

NOAUA! Orokorrean, nola doa aurtengo ikasturtea? Gazte asko hurbiltzen dira Gaztelekura?

Saioa Aginako: DBH1eko gazte dezente ditugu, oso motibatuta etortzen dira normalean lehen urte horretan. Adin tarte horretan ez daukate alternatibarik, eta behin adina dutenean Gaztelekuan hasteko oso gustura etortzen dira. Egunero etortzen dira gazteak, maila guztietakoak.



“Ukaezina da gizartean ekintza asko generoaren arabera banatzen direla, eta hori apurtzen saiatzen gara hemen”.

Neska eta mutilen arteko harremanak geroz eta normalagoak direla esango al zenuke? Bideoan behintzat hala ematen du.

Oraindik bat egite hori ez da erabatekoa. Normalean mutilak alde batean jartzen dira, eta neskek bestean. Momentu batzuetan elkartzen dira. Mahaiaren eta sofaren inguruan

elkartzen dira denak gehienetan. Adinean gora doazen heinean arrakala hori apurtu egiten da.

Lantzen duzue ikuspegi hori?

Bai, saiatzen gara ekintza guztiak denentzat izaten. Aurtentzen helburutzat horixe bera

daukagu, ahalik eta gauzarik gehienak denek batera egitea. Gizarteak banaketa horiek eginda dauzka nolabait. Eskulanak proposatzean, adibidez, beti izaten dugu kontuan genero ikuspegia, denek gustuko izango duten zerbait bilatzen saiatzen gara. Neskek gehiago

hurbiltzen dira eskulanetara, orduan gu saiatzen gara mutilak ere erakartzen eta hori lantzen saiatzen gara.

Hala ere, ukaezina da gizartean ekintza asko generoaren arabera banatzen direla, eta hori apurtzen saiatzen gara hemen.

BAZKIDEEEN TXOKOA



GABONETAKO ZOZKETAK



Lau saski zozketatuko ditugu

Bi saski 2019an zehar
Publiá jarri dutenen artean
eta beste bi
NOAUAIKO bazkideen artean.

noaua! euskararen aterpe

Euskaraldiko bizipenak eta desioak

Euskaraldiko iazko bizipenak eta urtebete barru izango dugun bigarren ediziora begirako herritarren desioak biltzen aritu ziren frontoian azaroaren 30ean, abenduaren 3ko Euskararen Eguneko ekintzen artean. Hemen irakurri genituen mezu interesgarri hainbaten zerrenda:

Zer izan da zuretzat Euskaraldia?

- Hizkuntzaren auzia eta patua plazaren esku jartzea.
- Primerako aitzakia, euskara maitatzetik erabiltzera eman beharreko jauziaz jabetzeko.
- Euskaraz hitz egiten ez dutan jendearekin euskaraz lehen hitza egitea.
- Inguruan euskararen alde egiteko prest dagoen jendea dagoela izatea.
- 1-Aurrerapausoa. 2-Hamaika eguneko iruzurra.
- Nahia eta ezina.
- Euskaraz hitz egiteko aukera handi bat.
- Ohiturak aldatzeko borondatea badagoela ikusi nuen.
- Euskara hutsean bizi gaitzkeela konturatzeko ariketa.
- Ezkortasunetik baikortasunera egiteko gonbita.
- Eguneroko erosketak euska-



Datorren urteko Euskaraldirako desioak biltzen aritu ziren frontoian azaroaren 30ean. Horietako batzuk batu ditugu orrialde honetan.

ZER IZAN DA EUSKARALDIA ZURETZAT?

“Primerako aitzakia, euskara maitatzetik erabiltzera eman beharreko jauziaz jabetzeko”

raz egiten saiatzen naiz ordu-tik.

- Ikastaro guztiak euskaraz ematea.
- Hamaika egunetan hainbat lekutan euskara entzutea bestela erabiltzen ez dutenean. Kontziente izatea.
- Euskara suspertzeko eta erabiltzeko une aproposa.
- Nituen lotsa eta beldurrak uxatzeko aukera.
- Keinu txikien ederra gozatu dut hari esker.
- Nire euskal izaera eta izatea berrindartzeko giltza. Euskaraz bizi nahi dut!
- Gure hizkuntza ohituretan toketxo bat. Euskara dela gure komunikatze tresnaz ohartzea.
- Hizkuntza ur txorrotada polita ematea, zimeltzen ari biltzen, ez aurrera ez atzera.
- Euskara egitera bultzatu duen ekimena.
- Euskara erabiltzen ez duen jendearentzat, ekimen ezin hobea goa.

“Zer lortu nahi duzu bigarren edizioarekin?”

- Euskaraldiko egunetan lortzen den atxikipen horrek jarraipena izan dezala egun horiek bukatzen direnean.
- Usurbil osoa edo gehiengo euskaraz hitz egiten entzutea.
- Gehiago ulertu.
- Euskara ulertu bai baina hitz egiteko zailtasuna dutenei bidea egitea erraztu.
- Umearekin hitz egin.
- Lehen saioko ilusioari eutsi.
- Euskararekin euskaldun bizitzeko beste urrats bat ematea.
- Ekimen honek gure eguneroko bizitzan euskara erabiltzera esnatuko gaituen desioa dut.
- Euskaldun pazientzia handitzea nahi dut!
- Euskara hitz egin etengabe.
- Jendearen konpromisoa zenbaterainokoa den frogatu.
- Euskara ulertu baina hitz egiten ez duen jendearekin euskaraz mintzatzea.
- Euskararen alde subjektu aktibo izan.
- Nire lankide euskaldunekin bedenik euskara hutsean ari-tzea lortu!
- Seme-alabek euskara zenbateko altxorra den ikus dezatela.
- Ezusteko bat baino gehiago.
- Eguneroko hizkuntza ohituretan euskararen berrindartze bat, gehiagorengana hedatuz.
- Euskaldun gehiago izatea urtetik urtera.
- Kontzientzia aldaketa; euskarak 365 egun dituela azaleratu eta barnertatzea.

Defentsarik onena, “euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzea”

Euskararen aldeko defentsarik onena erabiltzea delagogorazten du Euskaraldia Usurbilek, abenduaren 3ko Euskararen Egunaren harira plazaratu zuen adierazpenean; “bakoitzak ahal duen eta egoki ikusten duen konpromiso mailarekin: norbere aukera eta gaitasunen arabera”. Hala dio Kike Amonarrizek idatzitako adierazpenak.

Urratsik handiena, bigarren Euskaraldiarekin

Indarrak metatzeko deia egiten dute. “Auzoz auzo, herriz herri euskararen aldeko dinamikak piztu eta sustatzen baditugu, Euskal Herri euskaldunago, biziago, berdinzaleago eta justuago bat eraiki ahal izango dugu. Guretzat eta hurrengo belaunaldiarentzat”.

Etorkizuna irabazteko indarrik handiena gudan dagoela gogorazita, euskara ahotan hartzeri deitzen gaituzte. “Euskararen aldeko defentsarik



Bigarren Euskaraldia 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da.

EUSKARALDIARI BEGIRA

“Ezinbestekoa izango da euskaltzaleak batzea eta antolatzea. Bultza dezagun herriz herri, auzoz auzo, euskaltzaleen mugimendua”

rik onena erabilera da: euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzea. Euskara jalgi hadi plazara! Eta euskara pozarekin eta atseginarekin lotzea. Euskara jalgi hadi dantzara!”.

“Sakonagoa, zabalagoa”

Testuinguru horretan kokatzen dute, jada prestatzen hasiak diren bigarren Euskaraldia; 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo dena, “sakonagoa, handiagoa eta zabalagoa izan nahi duen Euskaraldia. Berau euskararen alde inoiz eman den urratsik handiena izan dadila nahi dugu: bere eragina ahalik eta herritar eta entitate gehienetara iritsi eta urteko 365 egunetara zabal dadila”. Horretarako, diotenez, “ezinbestekoa izango da eus-

kaltzaleak batzea, antolatzea eta trinkotzea. Bultza dezagun herriz herri, auzoz auzo euskaltzaleen mugimendua; sortu eta indartu ditzagun euskaltzaleen topaguneak eta Euskaraldiaren herri batzordeak Euskal Herriko txoko guztietan”.

Entitateen izen ematea zabalik

Norbanako Ahobizi eta Belarriprestekin batera, denetarikoko entitateen parte hartzea sustatu nahi da 2020ko Euskaraldian “ariguneen” (euskaraz aritzeko entitateen gune kolektiboak) bidez. Entitateek izen emateko epea zabaldu du jada Euskaraldiak. Interesdunek lehenbizi entitate barruko ariguneak identifikatu beharko dituzte eta “kideen arteko adostasuna lortzea ere ezinbestekoa da”. Entitateak erakundeak edo enpresak izan daitezke, baita denetarikoko herri eragile, talde eta elkarteak.

Informazio gehiagorako:

usurbil.euskaraldia.eus

Neguko oporraldira kantuan

Astebete barru neguko oporraldian murgilduko dira ikastetxeak, ohiturei eutsiz, kantuan:

Abenduak 20, ostirala Aginagako Eskola

■ 10:00ak aldera Aginagako Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoen kantu-jira.

■ Ondoren, guraso taldeak prestatutako hamaiketakoak.

■ Antolatzailea: Aginagako Eskola.

Zubietako Eskola

■ 12:00ak aldera, gabon kantak senideekin Errebote plazan.



Abenduaren 20an kantari arituko dira Aginaga, Zubietako eta Usurbilgo gaztetxoak.

■ Ondoren, Guraso Elkarteak hamaiketakoak eskainiko du Zubietako plazan. Txistorra, edaria, musikaz lagunduta.

Udarregi Ikastola

■ 09:30-10:45 LH-DBH-ko ikasleen kantu-jira: -LH-koek Kalezarko itzulia

egingo dute.

-DBH-koak Kaxkoan barrena ibiliko dira.

■ 12:10 HH-koen kantu saioa ikastola atarian.

■ 16:30 Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria egingo zaie Haur Eskolan. 2-3 urteko haurren gelara igo eta haiekin egoteko aukera izango dute ekarritako opariak banatzen dituzten bitartean.

■ 17:00ak aldera, Haur Eskolatik Kalezarreko plazara abituko dira kantuan.

Antolatzailea: Udarregi Ikastola.




Euskararen Egunaren bueltan hainbat ekitaldi antolatu dira azken asteotan: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldia kiroldegian; herriko artisten "Usurbildarrak daukate" ikuskizuna Askatasuna plazan edota Udarregi ikastolako ikasleen kalejira.

GIPUZKOA

Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

Usurbildarrena ere izan da Durangoko Azoka

Euskal kulturaren plaza nagusia izan dugu 120.000 bisitari erakarri dituen Durango, iragan aste-buruan. Usurbildarrena ere bai; herritarren sortze lanen eta sortzaileen topagune izan da Landako azken egunotan.

Durangoko 54. Azokako postu berean batu ziren, Natali, Iñorkiñak eta Joseba Tapia. Aurkezpen saioak izan dituzte Iñorkiñak eta Oreka TX taldeek, Yolanda Arrietak (“Ataria”). Ibai Arrietak Berri Txarrak taldearen azken urtebeteko bira iruditzen jasotzen duen argitalpena aurkeztu dute baita, Joan Mari Torrealdairaren “De la hoguera al lápiz rojo. La Censura franquista en el País Vasco”, Joseba Larratxeren “Joana Maiz” komiki lanarekin edota



Natali, Iñorkiñak eta Joseba Tapia postu berean batu ziren.

AURKEZPENA POTXOENEAN

Jakoba Errekondok bere liburu berria aurkeztuko du ostegun honetan, hilak 12, Potxoenean

Garazi Lizaso Manterola eta Oidui Usabiaga Arruabarrena kide izan dituen “Argi-izpiak txarran-

txen artean. 14 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko” talde lanarekin batera.

“111 hostoz eta orritz jantzi”

Jakoba Errekondok “Landa-reak lantzen 2020” aurkeztu zuen Antton Olariagarekin eta “2020ko ilargiaren egutegia” Pello Zabalarekin. Baita “111

hostoz eta orritz jantzi” argitalpena ere. Azken 25 urteotan, astero Argian landareei buruz idatzitako 1.111 artikuluren hautaketa bilduma duzue bere lan berria. Hautaketa honetan parte hartu dute eremu anitzetako bere 22 lagun ezagunek. Hiru lagunekin aurkeztuko du liburua ostegunean (abenduak 12) 19:00etan Potxoenean; Idoia Torregarai, Joseba Tapia eta Antton Olariaga izango ditu bidelagun Jakobak.

Usurbildarren uzta

Aurten usurbildarrek argitara eman dituzten sortze lanen bilduma osatzen ari da Sutegi udal liburutegia eta NOAUA! Kultur Elkarteak. Abenduaren 18tik urtarrilaren 7ra ikusgai izango duzue Sutegiko erakuslehoan.

Usurbilgo alde umoretsuena



“Herri txiki, infernu handi” saioan, usurbildarrak izan ziren protagonistak.

Usurbil ezagunagoa da Euskal Herrian igandez geroztik, ETBren “Herri Txiki Infernu Handi” saioari esker. Azaroan gure artean bildutako ahots eta irudiak eskaini zituzten: sagarra eta sagardoaren bueltan elkarriketaturiko Simona eta Manuel anai-arrebak agertu ziren, paitinen gainean hitz egin zuten Iban Salsamendirekin. Baba Beltz Txiki Kofradiako kide Joxe Ramon Sarasola eta Pedro Mari Matxainekin bildu ziren baita. Paseo ederra egin zuten, Juantxo Gorostidi txirindulari ohiarekin, Santuenetik San Estebango ermitako sekretuen berri jasotzera joan ziren Mari-

bi Arrospiderek. Kalezarren, Usurbilgo sorterriaz mintzatu ziren Milagros Aizpuruarekin. Aurtengo EITB Maratoiak erdigunean jarri duen haurren minbiziaren errealitatea plazaratu zuten Inar haurrak eta gurasoek. Guztia, Oiardo Kiroldegian grabatu zituzten Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurratxagaren bakarrizketa saioekin eta Sebastian Lizasoren bertsoekin girotua. Saioa ikusi ez bazenuen, eitb.tv atarian klikatuta duzue osorik. “Eskerrik asko bihotzez usurbildarrei eta astero Herri Txiki posible egiten duzuen guztioi”, adierazi du Pagadik sare sozialen bidez.

Tabernariak Pintxojararako prest



2,5 euroren truke, pintxoia eta edariaz gozatzeko aukera egongo da.

Aitzaga, Txirristra, Guria, Txiriboga, Bordatxo eta Artzabalgo langileak herritarrek abenduaren 14, 15, 28 eta 29an sei edaritegiotan barrena osatu ahalko dute Pintxojaran zerbitzatzeko prest dira. Gogoan izan, 2,5 euroren truke, pintxoia eta edaria (zurittoa, sagardoa, urteko ardoa, muztioa eta ura) dastatu ahalko duzue sei taberna hauetan. Taberna bakoitzean pintxoia eta edaria kontsumitu ahala guneotan emango den txartelean zigilua eskuratzen joango zarete. Bost zigilu eskuratuta, bost mokadutxo dastatuta alegia, seigarrena doan izango duzue!

Izen emateak eta puntuak

Hurbilago Elkarteak urte amaierarako antolaturiko ekimenetako bat da. Hurbilago Elkarteko kide diren saltokietan erosketak egiteari esker, abenduaren 31ko 10. Hurbilago San Silbestre Herri Lasterketan izena eman, lasterketa amaieran ospatuko den Gabonetako Zozketarako txartelak eskuratu (2 lagunentzako 12 otordu zozketuko dira) edota abenduaren 27 eta 28ko Gabonetako Parke Erraldoirako puntuak biltzen joan zaitezketek; 20 euroko erosketa bakoitzeko puntu bat. 10 puntu batuta, parkerako sarrera doan.



Ugaitz Agirre Zapirain

Hein batean, Antonio Vivaldi musikariagatik zara ezagun. Hori ikuspuntuaren araberrakoa dela esango nuke. Lehenagotik ere banintzen, eta hizkuntza gehienek badute ni izendatzeko hitzen bat. Baina zure asmoa goi kulturatan noiz egin nintzen ospetsu azpimarratzea bada... **Herri xehearekin identifikatzea nahiago al duzu?** Historian zehar kasu gehiago egin izan didate euren ipurditzarrak eserleku eroetetan jarri dituztenekin alderatuz gero. Badakizu, ordea. Nori axola uztaren gorabeherak agintariei eragiten ez dien bitartean? Hori bai, Napoleonek erru guztia niri bota zidan Errusiako kanpaina gauzatzeko gai izan ez zenean! Aurpegia behar da gero! Begira, bai, nahiago dut herri xehearen alboan egon. **Euren adierazpenetan ez daude konforme horrekin.** Garai moderno hauetan hego haize asko dabil. Kanta bat ere egin zidaten Zea Mayseko p* horiek. Baina nor direla pentsatzen dute niri horrela hitz egiteko? Zer espero dute ba, tropikalak izatea? **Protestak deitu dituzte zure etorrera dela medio abenduaren 22an.** Bai, entzun dut zerbait. Horregatik pixka bat aurreratu naiz, jakiteko zer nolako giroa usain daitekeen. Kale izkintan ezkutatuta entzuten nituen herritarren kexuak eta

“Izadiarekiko errespetu gehiago zenutelakoan nintzen”



“Orain esango didazu Kontxako hondartza dena zuri-zuri agertzea irudi itsusia dela”.

UGAITZ AGIRRE ZAPIRAIN
“Bere garaian, klima oso jatorra zen. Kontua da behin erretzen hasi zela, hasieran probatzeko bakarrik, badakizu, egur pixka bat (...). Eta azkenerako imajinatu dezakezun zabor guztia irentsi eta erretzen amaitu du. Horrek alde batetik edo bestetik kalte egin behar izan dio”

klima aldaketari egozten dizkiote eguraldia hain aldrebes egotearen kulpak. **Munduko herrialde nagusienetako buru batzuk ez diote fidagarritasunik ematen klima aldaketaren ideari. Zuk zer iritzi duzu?** Bere garaian, klima oso jatorra zen, lagunaren laguna eta edozer gertatzen zela, bera han esku bat emateko. Kontua da behin erretzen hasi zela, hasieran

probatzeko bakarrik, bada-kizu, egur pixka bat. Baina gero hasi zen ikatzarekin, eta petrolioarekin, eta gasarekin, eta azkenerako imajinatu dezakezun zabor guztia irentsi eta erretzen amaitu du. Horrek alde batetik edo bestetik kalte egin behar izan dio. **Eta aldaketa horretan zuk zer nolako rola jokatzeko duzu?** Esan bezala klima ez dago bere momenturik onenean, eta horrek askatasun gehixeago ematen digu nahi bezala ibiltzeko. Horrek esan nahi du sudurraren puntan jartzen zaidanean sekulako elurtea ekar dezakedala eta asperten naizenean lehorte, eta tenperatu igotzen dut Eguraldian anomaloa dei nazaten. **Baduzu aurtengo egonaldirako planik eginda?** Uste dut inprobisatzen jardungo dudala. Badakizu, inspirazioaren eta haizearen arabera. Etorri aurretik

oihu egingo dut “Winter is coming!”, eta hortik aurrera ba ikusiko dugu. Halere, aspaldian gogoarekin nago deskalabru handi-handi bat eragiteko. Denboraldiak izaten dira. Batzuetan gogo gehiagorekin etortzen zara eta beste batzuetan makal antzera. Aurten estatistikak apurtzekotan nagoela uste dut. **Esaten da benetan axola duten gaiak ezkutatzeko egiten duzula hori.** Orain esango didazu Kontxako hondartza dena zuri-zuri agertzea irudi itsusia dela. Ni autonomoa naiz, ez nago inoren menpe. Ez da nire errua albistegietan hogeimintu hitz egiten pasatzea eta unean-uneko erreakzioak ematea elurra dela eta. Zer uste duzu, eskupekorik jasotzen dudala horregatik? **Axola ez bazaizu, hemen galderak nik egiten ditut.** Hau lotsagarria da! Izadiarekiko errespetu gehiago zenutelakoan nintzen hona etorritakoan, baina ikusten da hemen dena kritikatzeko dela asmoa denaren errua norbaiti egozteko. Klima zuek errotu zenuten eta orain urtaroak errotu nahi gaituzue. Ai! Izotzaldi garaiak sasoia banu, derrepentean elur eta izotz pean jarriko nituzke bazter guztiak. Orduan bai amaituko zaizkizuela ton-takeria guztiak! **Amaitzeko zerbait gehitu nahi?** Abisatuta zaudete.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

URDAINTZI S.L.
 Eraikuntzak
 urdaintzi@euskalnet.net
 IT-ak egiten dira
 649 43 54 75
 943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
 Igeltseritza
 606 37 21 05
 Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
 Igeltseritza Orokorra
 693 059 392
 uraitz@uraitz.com USURBIL

Inaki Iturgintza
 BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
 ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK
 info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Igande honetan, San Tomas Azoka

Abenduaren 15erako antolatzen ari garen azokaren ezinbesteko osagaiak ditugu, sagardo eta babarrun txapelketak. Ekoizleok adi, abenduaren 12an amaituko da izen ematea.

Izen-ematea

Abenduaren 2tik 12ra, NOAUA!ko egoitzan. Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00/16:00-19:00. Informazio gehiago: 943360321.

Sagardo lehiaketa

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio. Oharra: sagardotegiak ezingo dute parte hartu.

Babarrun lehiaketa

Partaide bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du eta 12 euro ordainduko zaio.

Sagardo zein babarrun txapelketen sariak

1. saria 150 euro eta txapela.
2. saria: 90 euro eta kopa.
3. saria: 50 euro.

Abenduak 15, igandea

■ Goizean zehar, herriko babarruna ikusgai eta sagardoa



Abenduaren 15ean ospatuko da San Tomas eguna Usurbilen.

AZOKA

“Abenduaren 12an amaituko da babarrunak eta sagardoa aurkezteko epea. NOAUA!ko egoitzara ekarri behar dira”

dagai. Sagardo eta babarrun txapelketetako epaimahaia lanean.

■ 12:30 Irudipuinak, Ixabel Agirresarobe eta Mattinen eskutik, Sutegin.

■ 13:00ak aldera, Orbeldi D.T.-ren emanadia.

■ Zuberoako ikastolen aldeko elkartasun kanpainaren amaiera ekitaldia.

■ Sagardo eta babarrun txapelketako sari banaketa.

■ NOAUA!ren fotokoleko zozketa: Errigoraren eta Zuberoako produktudun otar bana zozketatuko da.

■ Azokako postuak: Alkartasuna kooperatiba; “Han goiko arrautzak”; Zuberoako produktudun otarren salmenta eta banaketa; Udarregi Ikastolako ikasleen gozogintza produktua; Aginagako Eskola; Orbeldi D.T.; Xua Gurasoekin Etxera herri ekimena; Talogileak; Aginagako Aranburu; NOAUA! K.E.; Gaztaingileak; Herriko ekoizleen sagardo postuak; Herrian ekoizitako babarruna ikusgai.

■ Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Sagardo Egunaren Lagunak.

Mendi Astea borobiltzeko, 20 kilometroko ibilaldia

Asteartean hasi zen Mendi Astea. Orientazio ikastaroaren ondoren, mendira jotzeko ordua iritsi da. Igandean Uxue Trail ibilbide luzea osatuko dute Andatzen barrena eta ondoren bazkaltzeko elkartuko dira Patri jatetxean. Hemen dituzue xehetasunak:

Abenduak 15, igandea

■ 8:00 Mendi irteera Andatzen barrena, Oiardo Kiroldet

gitik abiatuta.

■ Ibilbidea: 20 kilometro (Uxue Trail luzea).

■ Ondoren, bazkaria Patri jatetxean.

■ Izen ematea: abenduaren 11ra arte andatzamkk@gmail.com helbidean.

■ Oharrak:

-Plaza kopuru mugatua.

-Andatza M.K.K.-k antolatutako txangoetan parte hartzeko ezinbestekoa da

mendiko federatua izan eta aseguru txartela indarrean edukitzea. Federatu gabe dagoenari tramitea egiteko aukera eskaintzen dio mendizale taldeak.

Informazio gehiago:

andatza.com
andatza@hotmail.com

Antolatzailea:

Andatza M.K.K.

Hitzaldia Sutegin, Gipuzkoako Pentsiodunen Elkarteak deituta

Gure Pakea elkarteak eta AGIJUPENS taldeak pentsioen inguruko hitzaldi bat antolatu dute. Jose Agustin Arrietak eskainiko du hitzaldia, abenduaren 17an asteartea, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Sutegin.

Eguberri giroa Santuenean

Santuenea Elkarteak hainbat ekimen iragarri ditu urte amaiera honetarako:

■ Abenduaren 15era arte: gabonetako tailer artistikoa, 17:00-19:00.

■ Abenduak 20, 19:00 “Berdintasuna eta generoa” Jon Etxabe Telleria sexologo-psikologoaren hitzaldia. Ondoren, San Tomaseko ospakizuna: txistor jana.

■ Abenduak 24, 18:00 Olentzero kalejiran plaza ondoko lokaletik.

Gaztelekua, neguko oporrei begira

Ikasleek abenduaren 20an murgilaraziko dituen neguko oporraldian aisialdi tartea gozarazteko egitaraua osatua du Gaztelekuak. Adi, antolatu diren irteerarako aurrez guraso baimenak jaso beharko dira Gaztelekuan bertan:

■ Abenduak 21: “Got Talent” gaitasunak lantzen DBH 1ekoentzat.

■ Abenduak 27: Txuri Urdinera irteera DBH 1ekoentzat.

■ Abenduak 30: Pizza Tailerra DBH 4koentzat.

■ Urtarrilak 2: Tabakalera DBH 2koentzat.

■ Urtarrilak 3: Tabakalera DBH 3koentzat.

Miriam Arrillaga: "Ea martxoko arantzaxoa ateratzeko gai garen"

Miriam Arrillaga Beloki Aginagako pilotariak Master Cupeko finalean sartzea lortu du Leire Garai aurkariari irabazita. Martxoan binakakoan ere finalera iritsi zen Patri Espinarrekin, baina ezin izan zuten txapela lortu. Igandean Barakaldon izango du final handia eta NOAUA! berarekin izan da final aurreko sentsazioak biltzeko.

NOAUA! Emakume Master Cupeko finalean sartu zara Leire Garairi 18-5 irabazita. Garai-pen erraza izan zela esango zenuke?

Miriam Arrillaga: Egia esan bai. Duela gutxi bere aurka jokatu nuen eta 22-20 galdu nuen. Zentzu horretan, ez nuen espero finalerdia horrela izatea. Nahiko partida erraza egin zitzaidan. Hala ere, ez zait iruditzen finala horren erraza izango denik.

Miren Larrarte izango duzu aurkari. Nola ikusten duzu zure aurkaria?

Pilotarion artean osoena bera ikusten dut. Hanka oso biziak dauzka, jotzen duen pilotakada bakoitzeko zerbait berezia egiten du. Nahiko lan izango dut bere aurka, baina ni nire jokoa egiten saiatuko naiz eta ea emaitza ona eskuratzen duan.

Martxoan Patri Espinarrekin iritsi zinen Master Cupeko bi-



Igandeko finalari begira ondo sentitzen dela aitortu digu Miriam Arrillagak. Argazkia, artxibokoa.

MIRIAM ARRILLAGA

Miren Larrarte izango da igandeko finaleko aurkaria. "Pilotarion artean osoena bera ikusten dut. Hanka oso biziak dauzka, jotzen duen pilotakada bakoitzeko zerbait berezia egiten du. Nahiko lan izango dut bere aurka, baina ni nire jokoa egiten saiatuko naiz"

nakako finalera, baina ezin izan zenuten txapela eraman. Bakarkakoan oraingoan lortuko duzu Aginagara txapela eramatea?

Esperantza ez dut oraindik galdu. Txapelketa oso ona egin dut eta ongi sentitu naiz. Finalera horren eroso iristerik ez nuen espero eta nik nire jokoa

eginda uste dut txapela Aginagara ekarriko dudala.

Pelota goxoko finalean da Patri Espinar, zure kide izandakoa. Hark txapela irabaziko al du?

Nik Patri oso ongi ikusten dut. Egia da Leire Etxaniz ere oso indartsu dagoela; hiru txapela baditu lau eta erdikoan. Patrik bere jokoa egiten badu nik uste Leireri aurka egiteko gai izango dela, baina berak ere oso partida gogorra dauka. Ea biok txapela lortzen dugun eta martxoko arantzaxoa ateratzeko gai garen.

Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketako finala

Abenduak 15 igandea

- Pilota mixtoko finala: Miriam Arrillaga-Miren Larrarte.
- 12:00 Barakaldon.
- ETB-k zuzenean eskainiko du.

Futbol partidak

Abenduak 14, larunbata

- 9:30 Areto futbola, kadeteak: Usurbil F.T.-Antigua Luberrri
- 10:00 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil F.T. "A" -Udarregi Usurbil F.T. "B"
- 11:30 Infantil neskek F-8: Usurbil F.T.-Orioko F.T.
- 16:00 Erregionalak: Usurbil F.T.-Segura

Abenduak 15, igandea

- 11:00 Futbol Eskola: Usurbil-Urnieta -Hernani-Urnieta

Eskubaloï partidak

Abenduak 14, larunbata

Eskola Kirola

- 11:00 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil -Ereintza Lisomat

Usurbil K.E.

- 12:30 Kadete neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Ereintza Beissier
- 16:00 Kadete mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Ereintza Todo Terreno
- 18:00 Senior neskek, Euskadiko Txapelketa: Urbil-Usurbil K.E. -Eraiken Eharialda

Errifa zozketa

10.894 izan da Usurbil KE-ekin duen errifa zozketako zenbaki saritua. Zenbaki honen jabeak bi lagunentzako otordua irabazi du Aginaga Sagardotegian.

Usurbil FT-ko klubeko argazkia

2019-2020 denboraldiko talde argazkia aterako dute larunbat honetan, abenduak 14, 12:45ean Haranen.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Iggogailurik gabe. Dena berritua. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berritua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

duratsua eta garbia. 612 487 017.

Alokairuan

Etxe baten bila gabiltza alokairuan edo salmentan Usurbilen. 688 714 317. Deitu asteazken zehar 16:30etik aurrera edo asteburuetan.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuzko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. T616 027 636

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Ar-

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Yamaha Virago 250 XV motorra salgai eta osagarriak opari. 990 euro. 617701173.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali

CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainkategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Emakume Usurbildar bat naiz eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Esperientziarekin. 616 273 785

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.



Zorionak Lierni!

Ondo pasa zure egunean eta muxu asko etxekoan partez.



Zorionak Alaitz!

Abenduaren 16an 10 urte beteko dituzu. Egun zoragarria pasako dugu familia eta lagunekin. Muxu handi bat familiaren partez!!

Heriotzak

Praixku Segurola Zubeldia

82 urterekin hil zen abenduaren 3an Usurbilen



José Prados Benito

71 urterekin hil zen abenduaren 8an Usurbilen



Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Esperientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta

lanqilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak

zaintzen lan egingo nuke. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. 631 996 636.

BESTELAKOAK

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

Urtea zehar ingeleseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzailak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 12	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 13	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 14	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 15	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 16	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 17	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 18	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Abenduak 12 - Abenduak 22

Osteguna 19	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 20	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata 21	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 22	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda abendua

13 ostirala

- **Jostailu Erabilien Azokarako bilketa.** Ikus 17:00-19:00. Tokia: Sutegiko erakustaretoan.
- **"SOS Usurbil, erraustegia gelditu"** manifestazioa, 19:00etan udaletxetik abiatuta. Deitzailea: Usurbilgo Udala.

14 larunbata

- **Harria Hitz bisita gidatua.** 10:00 frontoian.
- **Ñaco Goñi eta Fernando Beiztegiaren kontzertua.** 19:00etan Zendoian.
- **Jostailu Erabilien Azoka.** 11:00-12:30 artean Usurbilgo frontoian.
- **Pintxojira.** Antolatzailea: Hurbilago.

15 igandea

- **Mendi irteera Andatzen barrena.** 8:00etan Oiarde kiroldegitik abiatuta.
- **San Tomas Azoka.** Egun osoan.
- **Pintxojira.** Antolatzailea: Hurbilago.
- **Zutik filma Sutegin.** 18:00etan.

Jostailu erabilien azoka

Jostailu Erabilien Azoka larunbat honetan egingo da, goizeko 11:00-12:30 artean, frontoian. Jostailuen bilketa ordea lehenago egingo da, ostegun eta ostiral honetan, 17:00-19:00 artean Sutegiko erakustaretoan.

Hitz Ahok aditzera eman duenez, azokarako joko edo jostailurik utzi nahi duenak baldintza hauek bete behar ditu:

- Jostailuek osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.
- Bilketa egunetan jasotzen dena musu-truk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batengatik aldatzeko.
- Azoka egunean jostailuak trukatzeko, 8 urtetik beherakoek, arduradun batekin



Azoka larunbat honetan egingo da. Jostailuen bilketa aldiz, ostegun eta ostiral honetan, 17:00-etatik 19:00era Sutegiko erakusketa aretoan.

parte hartu beharko dute.

- DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.
- Piladun jostailuek funtzionatzen dutela erakutsi beharko da.
- Azoka amaieran bertan geratzen direnak "Ez itxi begiak" Elkarteak jasoko ditu.

Urteko azken bisita gidatua

- Abenduak 14 larunbata.
- 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
- 10:05 Harria Hitz bisita gidatua herri-gunean (Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa Plaza, Tapiaren murala, Askatasuna Plaza, Sagardoaren Monumentua).
- 11:15 TXTXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita.
- 12:35 Zumeta Arte Estudiora bisita.
- 13:45 Amaiera.
- Informazioa eta erreserbak: 688 818 017 info@kultour.prio (25 lagunentzako lekua gehienez).

Datozenak

Rikardo Arregiri buruzko "Zutik" filma, igandean Sutegin

Udan, Maluta Films ekoiztetxeoak Udarregi bertsolariaren omenezko eskultura parean grabatzen aritu ziren. Ainara Mendiolak zuzenduriko labur-metraia igande honetan bertan (abendua 15) ikusi ahalko dugu 18:00etan Sutegin. Sarrerak gonbidapen bidez eskuratu ahalko dituzue aurrez Potoxoenan (943 371 999) edo Lizardi liburu dendan. Proiektzioa lan taldeko ordezkari bat bertaratuko da eta haiekin solasean aritzeko aukera izango da. Gogoan izan, 1966ko maiatzaren 22an, Udarregiren omenezko eskulturaren inaugurazio ekitaldian, Rikardo Arregi kazetariak hitzaldi go-goangarria eskaini zuen Usurbilen.

"Berdintasuna eta generoa" hitzaldia Santuenean

Jon Etxabe Telleria sexologo-psikologoak "Berdintasuna eta generoa" hitzaldia eskainiko du abenduaren 20an ostirala, Santuenea Auzo Elkartearen. 19:00etan hasiko da hitzaldia. Ondoren, San Tomaseko ospakizuna, txistor janarekin. Antolatzailea: Santuenea Elkarte.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patri
Patri ETA
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatara

© 943 362725 · © 688 690 361

USURBILGO denda txikien

atrakzio parke

ERRALDOIA!

2019

ABENDUAK

27-28



USURBILEN
zure erosketak egiteak **SARIA** du:
egun osoko sarrera **DOAN!**

20€^{ko}
erosketaren truke
puntu1
jasoko duzu

10 puntu
lortuz gero
egun osoko
sarrera
zuzetzat!

PUNTUAK
ESKURATZEKO:
azaroaren 18tik
abenduarien 26ra
Usurbilgo komertzioetan



Usurbilgo Udala



hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaren Ekartera

San Tomas eguna

Abenduaren **15ean**
igande goizez

Babarrun eta
sagardo lehiaketa

- Ixabel Agirresarobe **ipuin kontalaria 12:30**
(4-10 urte bitarteko umeentzat) DOAN
- Gaztainak** bertan eginak dastatzeko aukera ·**Taloak**
- Noaua!ko postua** eta **photocall** (zozketarekin)
- Gozogintza** postua (Udarregi) ·**Herriko ekoizleen** postuak



U
S
U
R
B
I
L
G
O
S
A
G
A
R
D
O
L
E
H
I
A
K
E
T
A

noaua

Udaregi Udaia